

# Haur eskola pribatuak, kezkatuak

Zentro askok zailtasunak dituzte 0-3 zikloa arautzen duen dekretura egokitzeko, eta atek itxi egin beharko dituztela salatu dute; malgutasuna eskatu diote Nafarroako Gobernuari.

EDURNE ELIZONDO  
Iruñea

Fatima Lopezek iaiz zabaldu zuen Iruñeko Arrotxapea auzoko El Cole haur eskola, zero eta hiru urte bitarteko haurtzaindaria. Adin tarte horretarako zikloa arautzeko dekretua prestatzen ari zen garai hartan jada Nafarroako Gobernuak, eta testuaren zirraborra eskuan hartuta ekin zion Lopezek eskola zabaltzeko tokia bilatzeari. Dekretua joan den martxoan onartu zuten. Lopezek agiri horrek jasotzen dituen baldintza guztiak bete ditu. Hiru urteko epea zehaztu zuen dekretuak jada zabalik zeuden haur eskola pribatuak legera egokitu ahal izateko. Hala ere, hori egiteko aukerarik gabe, atek itxi beharko dituztela salatu dute jada hainbat haurtzaindaria pribatuak. Iruñean 22 haurtzaindaria pribatu daude gaur egun. Denen artean, 1.452 haur zainzten dituzte.

Lopezek azpimarratu du dekretuak zehazten dituenak betetzea ez dela batere erraza izan. «Toki egokia bilatzea izan da gauzarik zailena, espazio handia behar baita». Arrotxapean aurkitu du, azkenean, egoitza. 220 metro koadroko etxabea du, eta beste 110 metro koadro gaineko solairuan. Eskolan diren haurtzaindaria lau gela atondu ditu. Berarekin batera, beste zazpi lagun ari dira lanean. «Jolas-tokirik ez dugu, ondoko plaza baliatzen dugu; hori egiteko baimena eman didate, eskolatik zuzenean ateratzen ahal direlako haurrak espazio horretara», azaldu du Lopezek.

Dekretuak neurri zehatzak ezartzen ditu haur eskolentzat.



Tafallako haur eskolako haurrak. JACOB MANTEROLA / ARCAZKI PRESS

Gutxienez 30 metro koadroko gelak izan behar dituzte eskolek, eta areto berean unitate bateko baino gehiagoko haurrak elkarre-

**«Dekretua iruzur moduko bat da; eskola publikoak egiteko tokirik ez dute, eta pribatuak baliatzen dituzte»**

PILAR SORELLES  
DISNEY HAUR ESKOLAREN ZUZENDARIA

**«Haur kopuru berari eusteko, espazio gehiago eskatzen dute. Ezin diogu egoera horri aurre egin»**

SOFIA CHARRRO  
HAUR ESKOLEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

kin egoten badira, 1,75 metro koadroko gutxieneko espazioa izan behar du haur bakoitzak. Gainera, erabilera anitzeko gela behar da, haurtzaindaria logela, langileentzako aldagela, eta abar.

**ETORKIZUN BELTZA.** Disney haur eskola 1976. urtean zabaldu zituen atek. Dekretuarekin, ilun ikusten du etorkizuna bertako zuzendari Pilar Sorellek. «Hagitz ilun». Ez du bere haserrea ezkatzen: «Dekretu hau iruzur moduko bat da; eskola publikoak egiteko tokirik ez du administrazioak, eta pribatuak baliatzen ditu», erran du Disney haur eskolako zuzendariak.

## Euskararen kezka dekretu berriari buruz

Nafarroako Gobernuak dekretua onartu zuenetik, haur eskola pribatuaren esparruan sortu den eztabaida ez da 0-3 zikloari buruzko bakarra izan. Testuaren edukiek kritikak sortu dituzte hainbat elkar-terren eta sindikaturen artean. ELASeK, adibidez, gela bakoitzeko haur kopuruari buruzko kezka agertu zuen bere garaian, bai eta 0-3 Zikloko Plataforma ere. Ratioak handiegia zirela azpimarratu zuten.

Nafarroako hainbat udalek osatzen duten plataformak, berriz, ziklo horren izaerari erreferatu dio, batez ere, eta Gobernuaren dekretuak ez duela 0-3 etaparen publikotasuna bermatzen salatu izan dute. Plataforma horren ustez, Nafarroako Gobernuak hartu beharko luke bere gain haur eskolak kudeatzeko ardura, udalek ezin diotelako egoerari aurre egin.

Euskarak, halaber, sortu du eztabaidarik. Dekretuak euskara aipatu ez izanak eragin du hainbat talderen kritika, zehazki. Sortzen-ikastatuaz-ek salatu du egoera hori, besteak beste. Iruñean haur eskolak euskaraz zabaltzeko plataforma sortu da Nafarroako hiriburuan, gainera, egun dauden zentroek ez dutelako inondik inora dagoen eskaerari erantzuteko gaitasunik.

Izan ere, Iruñean bi haur eskola baino ez dago euskaraz. Biak Txantrea auzoan daude, gainera. Iruñeko hainbat gurasok eta hezkuntzaren arloko profesionalak sortu dute haur eskolak euskalduntzeko plataforma. Bi milatik gora sinadura aurkeztu zituzten maiatzean eskaera horren alde. Euskarazko eta kalitateko haur eskolak lortzea da haien helburu nagusia.

Euskaraz ez, baina gaztelania eta ingelese uztartzen duten hainbat haur eskola zabaldu du Iruñeko Udalak azken urteetan: *british* direlakoak. Hori da UPN-ko agintariaren apustua.

Etxabe batean du eskola. Dekretuak jasotako baldintzak ez ditu betetzen. «Eta ezin izanen ditut bete», aurreratu du. «Aukera bakarra eskola beste nonbait zabaltzea da, baina halako inbertsiorik egiteko aukerarik ez dute. Ezin dute

halako dirutza gastatu». Sorellen aburuz, hala ere, bada egoera okerragoan dagoenik ere: «Ume Txiki edo La Casita haurtzaindiegiak, adibidez, etxe bateko lehen solairuan dute egoitza; dekretuak ez du horrelakorik baimentzen, inondik inora».

Konponbide baten zain dago Sorell, baina ez du itxaropen handirik. Disney haur eskolako zuzendariak, hala ere, badu proposamenik: «Egoitza berriek bete dezatela dekretuak jaso duena; aurretik zabalik garenok, izan daitezela malgu; dei gaitzabela ludoteka, haur eskola izateko biderik ez badugu, baina ez ditzatela gure atek itxi».

**KONPONBIDE BILA.** Konponbide baten bila dabil, hain zuzen ere, Nafarroako Haur Eskolen Elkarte presidentea Sofia Charro. Espazioa da arazoaren muina, haren ustez. «Haur kopuru berari eusteko espazio gehiago behar dugula eskatzen digute. Ez da errentagarria. Ezin diogu egoera horri aurre egin».

Hori da gakoa, Charroren ustez. Hori, eta haur eskola gehienek inbertsio handiak egiteko zailtasun handiak dituztela. Horregatik, dekretuak ezartzen dituen baldintzetara egokitzeko denbora gehiago eskatu du, batetik, eta, bestetik, malgutasuna, baldintza horietako batzuen inguruan. Erabilera anitzeko gela aipatu du, adibidez. «Haurtzaindaria gelez gain, halako aretoa eskatzen digu dekretuak; gure proposamena da gela hori haur talde baten gela ere izan dadila».

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko arduradunekin harremanetan dira haur eskolentzako ordezkariak, irtenbide baten bila. Hezkuntza kontseilari Carlos Perez Nievasek, hain zuzen ere, laguntzak iragarri ditu haur eskolentzat, dekretura egokitu ahal izateko. Baina argi utzi du: «Haur eskola pribatuak espresak dira; dekretu berriak aukera ematen du haien jardueraren hezkuntzaren esparruan kokatzeko. Horretarako hainbat baldintza bete behar dituzte. Bestela, hezkuntzaren esparrutik kanpo dagoen jardueraren egiten jarraitu beharko luketela agian».

## ■ Dekretuaren gakoak

Nafarroan zero eta hiru urte bitarteko 123 zentro daude. Era askotakoak dira. Dekretuak jasotako baldintzak bete beharko dituzte legezaren babesa jaso ahal izateko. Marboan onartu zen testuak hiru urteko epea zehazten zuen haur eskolentzat baldintza horietara egokitzeko. Esparru pribatuaren sortu dira arazoak.

### Zentroak

■ **Hezkuntza proiektua.** Nafarroako Gobernuaren dekretuak onartzen du era askotako zentroak daudela. Testuak, hala ere, ez du guztiak arautzeko aukera jaso-

tzen. Bereizten ditu hezkuntza proiektua dutenak eta aisialdirako direnak, edo izatearaz asistentziala dutenak. Azken horiek dekretuak arautzen duen esparrutik kanpo geldituko lirarteke. Beraz, Haur Hezkuntzako lehen zikloko zentroak izanen dira dekretuak jasotzen dituen baldintzak bete eta hezkuntza proiektua modu jarriaren eskaintzen dutenak.

### Eskolaren baldintza fisikoak

■ **Haurren gelak.** Unitate bakoitzeko gela bat izan beharko dute eskolek; gela bakoitzak, gutxienez, 30 metro koadro

izanen ditu. Areto bera unitate batekin baino gehiagok erabiltzen badu, gelak, gutxienez, 1,75 metro koadro izan beharko ditu haur bakoitzeko. Urte batetik goitiko enpleak, halaber, atsedean hartzeko espazio bereziak eduki beharko dituzte. Gela bakoitzeko bainugela bat izanen dela zehazten du dekretuak, eta urte batetik goitiko haurtzaindaria logela.

■ **Erabilera anitzeko gela.** Halako espazioa derrigorrezkotzat jotzen du dekretuaren testuak.

■ **Jolastokia.** Atari zabaleko jolastokia eduki beharko dute eskolek. Hainbat ka-

sutan, sarbide zuzena badago, espazio publiko bat izan daiteke haur eskolaren jolastokia.

### Langileen prestakuntza

■ **Especialistak.** Hezkuntza proiektua haur hezkuntzan espezialista diren irakasleek garatuko dute. Lanbide Heziketako bigarren graduako titulua duten langileek ere izanen dute aukera Haur Hezkuntzako lehen zikloan aritzeko.

### Ratioak

■ **Haur kopurua unitate bakoitzeko.**

Kopurua zehaztu ditu dekretuak: zero eta urtebete bitarteko haurren gelan, gehienez zortzi; urtebete eta bi urte bitarteko gelan, hamabi; eta bi eta hiru urte bitarteko gelan, azkenik, hamasei.

■ **Adin ezberdinetako haurrak daudean unitate berean.** Zero eta urtebete bitarteko haurren gelan gehienez zortzi haur izanen direla zehazten du dekretuak; urtebete eta bi urte bitarteko haurren gelan hamalauko kopurua aipatzen du testuak, eta adin guztiakoko gela, azkenik, hamar haur izanen dira, gehienez ere, dekretuaren arabera.